

y el Dr. Irigaray realizó una serie de viajes a distintos países de Europa para conocer los diferentes aparatos que se utilizaban; asistió a unas Jornadas Internacionales realizadas en Berlín sobre las aplicaciones médicas del Betatrón, que finalmente, fue puesto en marcha en 1975. Este nuevo aparato permitió el tratamiento de otro tipo de tumores hasta entonces incurables. Tres años más tarde y fruto de la experiencia con esta técnica, el Instituto Oncológico organizó un Symposium Internacional sobre la utilización de los electrones acelerados en Medicina, participando, junto a expertos internacionales, los responsables del Instituto Oncológico, entre ellos el Dr. Irigaray. Nuevas participaciones en Congresos Nacionales e Internacionales jalonan la actividad del Dr. Irigaray en estos años.

Y cuando ya se le acercaba la jubilación, a los 57 años, decidió realizar la Tesis Doctoral, en la que proyectó toda su experiencia de largos años de trabajo. El tema fue “Contribución al tratamiento del Cáncer de mama en la mujer con Radioterapia, Cirugía y otras técnicas”, excelente broche a una vida dedicada al estudio y tratamiento del cáncer.

En resumen, la vida del Dr. Irigaray nos va mostrando paso a paso los avances en el diagnóstico y tratamiento del cáncer por medio de radioterapia en los últimos 30-40 años. Es también la vida del Instituto Radio-Quirúrgico, hoy denominado Oncológico, obra social de la Kutxa Gipuzkoa-Donostia al que estuvo vinculado desde su juventud hasta su jubilación. Este libro, de agradable lectura, nos hace conocer un poco más a algunos de los médicos que en los años 50 trataron de poner las bases de la medicina moderna de la que en este momento disfrutamos los guipuzcoanos y todos los vascos en general. Felicitar desde estas páginas al Dr. Irigaray, tanto por su libro como por la labor médica realizada.

*Pedro Gorrotxategi*



**KINTANA GOIRIENA, Jurgi**  
**Vizcaytik Bizkaira?: R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)**  
 Bilbo: Euskaltzaindia – BBK Fundazioa, 2002. – 180 or. : il. : graf. ; 21 cm. – ISBN: 84-95653-19-2

Jurgi Kintana Goirienea liburu hau argitaratu aurretik Azkue eta bere garaiaren ikerketa asko ikertua dagoela esaten badugu, baieztapen biribilegia egingo genuke. Historiagileek, kulturgizonek, euskalariak, politikoez denek ibili baitira XIX. mendean bukerara eta XX.aren hasiera inguru horri giraka eta biraka. Azkue, Sabino Arana, Unamuno, Campión, Julio Urkixo, Guridi, Sota, Txomin Agirre, Etxegarai anaiak, Julián Elorza eta euskal pertsonaia asko ikertuak dira, estudio ugari daude, baina Kintana ikerle gaztearen liburu honek beste ikusbide bat ematen digu. Hara, ene ustez, zergatik:

Egileak ematen digun aukerak, baditu gutxi landutako ikerketa abantail pare bat: 1. euskarararen ezagutza ez ohikoa historiagileen artean, 2. iturri zuzenetara jotzea. Azaldu egiten nau gure –eta gure diot, hemengoak direlako, bizitzaz edo jatorriz– historialari askok, euskarazko agiri, testu eta lekukotasunik ikusi gabe, euskalgintzaren ezagutza urriz nolako baieztapenak egiten dituzten. “copio, copias, copiare, copiavi, copiatum...” delako ugari irakurtzen dugu azken bolada honetan jakitun anitzengandik. Ez da egile honen kasua. Topikoetatik ihes egiten du, zuzenean sartzen da Azkuek, Urkixo, Arana-Goiri, Campión eta beste askorekin izandako harremanetan, iturgarrietara jotzen du, ez ibarreko ibai nahasietara eta horrek ematen dio ikerketara berritasun eta originaltasuna. Aurton, Sabino Arana Goiri haren garaikideari buruzko saioetan, artikuluetan, mahai-inguruetan eta antzerakoetan irakurri edo entzun ditugunak ikusita ezjakintasuna, azalergia eta sektariokeria ezin nabarmenago gelditu dira. Ez da, gaurko gure aipatuaren kasua, inondik nora!

“Azkue, bai, Azkue... Azkuek gauzak egin zituen, jakina, baina XX. Mende hasieran Guri zen Euskal Kultura!” bere ikerketa proiektua epaitzen zuen tribunaleko baten esaldiarekin hasten du liburua. Arestian esan dugun ezjakintasunaren adierazgarri da kultur epaile horren euskalgintzaren ezagutza. Hori iraultzen du Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak babestu eta Euskaltzaindiaren epaimahaiaik “Mikel Zarate” saio lehiaketan saritutako obragileak.

Iturgariaik aipatu dut gorago, iturburu baino hitz adierazkorragoa delako hidronimian, zeren eta iturgarrietara jo baitu Kintana Goirienak. Azkueren obra idatziak, garaiko eta garaiari buruzko lan historikoak aztertu ditu, baina, berak dioen moduan, Jose Antonio Arana Martija adiskideak Azkueren gainean egindako biografia eta artikulua nabarmentzen ditu. Inor bada “azkuerologoa”, berau gernikar euskaltzainkidea da, lorratz asko ematen baititu. Ondorioz, ezkura zeukan euskal agiritegi eta dokumentazio zentzurik oparoenetarikoa, Azkue Bibliotekara, jo zuen, makina bat aldiz Plaza Barrian elkar ikusten ginelarik. Etxe horretan, ez bakarrik artxibo orokorra, baita ere, lehen eskutik “Azkue Fondoa” ( nork aztertu ditu orainarte bost mila eskutitz baino gehiagoko Azkueren gutuneria pertsonala i ) eta “Juan Carlos Guerra Fondoa” zehatz miatu zituela argi erakusten du. Toki berean, garai haretako aldizkari eta egunkariok : *La Abeja*, *Euskalzale*, *Ibaizabal*, *Euskal-Erria*, *Euzkadi*, *La Gaceta del Norte*, **RIEV** eta *Euskera*. Ezagun da, bestalde, ez bakarrik aipatzen duelako, testuan ere nabari delako baizik, Koldo Mitxelena Kulturgunean dagoen “Julio Urkixo Fondo” aberatsa, Gipuzkoako Diputazioak erosi zuelako Donostian gordetzen dena, sakon aztertu zuela. Izan du, hirugarrenik, lapurtar baten emaitza ezin aberatsagoa, Piarres Xarrittonena, egileak dioen bezala: “bereziki Ipar Euskal Herriko munduaz, bere jakituria apartaz ilustratu gintuen”, horrela Azkuek eta bere garaikideek Bidasoaz haraindikoekin zer harreman sare zuten argituz. Egia esan, mugaz honaindiko historiagile gutxik ikertzen du hori. Erabili dituen iturri bibliografikoez ez naiz luzatuko, aski dauka bakoitzak zerranda oparo hori irakurtzea.

Bost ataletan tajutzen du lana Jurgi Kintanak: 1. gaztaroa, hobeto esan 1864an, Lekeition jaio zenetik Salamancako seminario nagusian apaiz ikasketak amaitu arte, 1888an; 2. Azkue Bilboko euskara katedran (1888-1904) deritzon ataletan; 3. Europan zehar (1904-1909) musika ikasketak egiteko eta euskara-gaztelania-frantses hiztegia argitaratzeko; 4. Bilbon, ostera ere (1909-1919), nire ustez emankorrena da, Euskaltzaindia sortu arte; 5. Ondorioak, hots, egileak ateratzen dituen burutzapenak.

Kintana Goirienak azaltzen dizkigun ikerkizunek, aspalditik uste genituen hipotesiak birrestu dizkigu, alegia, nazionalismoaren, karlismoaren, fuerismoaren eta

liberalismoen arteko harreman eta kontraesanak ezin direla, historialari kontsagratu gehienek interpretazio linealegietan segitu. Nola azal daiteke, bestela, Azkue integrista izanik, karlista jatorrikoa, Arana-Goiritarrak legez, hain harreman onak izatea, Sota lehenarekin, berau liberal fuerista bai zen? Sabinok, berak “fenizioak” deitzen zituen burges-kapitalistekin, harremanak izateko oinarritzko eskupulu lar zituen. Azkue abadeak, beharbada horregatik, elizgizonak mezenazgo bilatzaile trebeak izaten direlako “Sotak, izan ere, Azkueren kultur jardueraren garrantzitsuak lagundu zituen. Era horetara euskalerrrikoek politikaz harantzago-ko proiektuak garatu zituzten” dio gure saiogileak. Azkue gizon pragmatikoa zela lekukotzen digu, ez bakarrik Sota burgesarekin, baina eliz jerarkiarekin, seminarioko euskal katedraz eta bestez, euskal maisu eta unibertsitate ezkariez, musika, antzerki eta gainontzeko arte ederrez. Prat de la Ribaren “la política del posibilismo” ildotik aritu zen orduko herrigintzan, zuzenean politikagintzan murgildu ez bazen ere. Jendaurreko onomastika euskalduntzeko asmoa ez zuela Azkuek Sotaren etxe, yate, itsasontzi eta antzekoetan mugatzen argitzen digu saiogileak, “Hein batez ideologietatik haratago zegoen euskal izenen eskari hori”... “Abertzaletasunetik aldendurik egonik eta bete-betean Bizkaiko oligarkia espainolistaren partaide izanagatik Neguriren inguruan berriro ere Azkueri euskal izenak eskatu zizkioten...” Amann, Aresti, Gorbeña, Aznar, Ybarra, Barbier eta abarrekin kolaboratu zuela, alegia, Azkuek. Ene ustez, Kintana Goiriarena labur gelditzen da Azkueren pragmatismo honekin eta berak edo, beste norbaitek garatu, ikertu beharko luke gai hau.

Antzerako zerbait esango nuke “Kirikiño”z, zeren eta “Azkuerentzat mingarria izan bide zen Evaristo Bustintzarena, Cacerestik ( ez zen probintzia horretatik izan, Albacetetik baizik) Euskal Herrira bueltatzen Azkuek lagundu, hainbat lan topatu ...” badio ere saiogileak, ez nago ados, sabindarrekiko haustura izan zenik barneko arrazoia. Kirikiño, ikasketez, zientzia zehatzetan lizentziatua zen eta bere alargunari entzuna dudanez, zehatza eta zorrotza. Agian, zorrotzegia Azkuerentzat, beraz, izaera konponezina ez ote? Ni holako kontuetan, politikoetan batipat, karaktere bortitzak, kasurako hausturak, errazago uler daitezke.

Aurkibide onomastikoa oso onuragarria izango zen liburu honetan, zeren eta horrela oparago agertuko zen Azkueren harreman sarea, ez bakarrik bertako eta atzerriko euskarologoena nabarmentzeko; baita ere, politikari monarkiko, karlista, euskalerrriko, nacionalista, errepublikano eta beste; orobat, musiko, artista nahiz mezenas eta, ahantzi gabe elizgizonak, iherarkia barne. Ondorioak berriz irakurrikeran, horren faltan edo gogoarekin gelditu gara. Ilustrazio eta grafiko askorik ez du, baina bat, 157. orrialdekoa, Jurgik berak egindakoa, gomendatzen dugu, hots, “Euskal Herriko esparru ideologiko-kulturalak XX. mendearen hasieran” deritzona.

Amaitzeko, egileak berak dioen legez, “Azkueren lan kultural eta intelektual guzti hau, eraldaketa politiko adierazgarrien testuinguruan garatu zen”. Eta hori guztia hobeto ezagutzeko aukera paregabea ematen du.

*Jose Luis Lizundia*